

PRESTAKUNTZA ARLOA:	BERRIKUNTZA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

TALLER SOBRE INNOVACIÓN ADMINISTRATIVA Y E-ADMINISTRACIÓN

KODEA

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Otsailak 11 eta 12	TOKIA/IKASGELA	Bilbo. IVAPeko egoitza (Errekalde zumarkalea, 18)
IRAUPENA	10 ordu	ORDUTEGIA	09:00-14:00
MATRIKULA EPEA	Urtarrilak 20	ONIRITZI EPEA	--
IKASLE KOPURUA	20 pertsona	HARTZAILEAK	Udaleko pertsonal teknikoa
HAUTATZE IRIZPIDEAK	--	LEHENTASUNA	Altua
IRAKASLEA	Fermin Cerezo. Valentziako Aldundiko Gardentasun eta Gobernu Irekirako Ataleko burua	MATERIALA	Ikastaroari dagokion materiala banatuko da
DISEINUA	EUDEL-FORUAK-IVAP	AZPIEGITURA	Ordenagailu eramangarria, proiektagailua, papelografoa

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK

- Administrazio-berrikuntza eta -sinplifikazioa txertatzea, funtzio publikoak eta erakunde publikoek herritarrekiko duten harremaneko kultura-balio berri gisa.
- Praktikaren bidez, molestia, kostu eta karga administratiboak kentzeko metodologian sakontzea, administrazio-prozedura sinplifikatuz.
- Erakunde publikoak dauden egoera erosotik ateratzea sinplifikaziorako proiektu berritzaileetan oinarrituta eta proiektu horiek gauzatu.
- Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea oinarri hartuta, zabal daitezkeen ekintza potentzialak transmititzea, administrazio elektronikoaren planak zein proiektuak sinplifikatu eta berritu daitezzen.

IKASLEEN HELBURUAK

- Administrazio-berrikuntzarekin zerikusia duten alderdi nagusiak ezagutzea.
- Herritarrek beren administrazioekin duten harremanetik burokrazia kentzeko eta harreman hori sinplifikatzeko ekintza nagusiak ezagutzea.
- Berrikuntza-proiektu publikoak garatu ditzakeen aldaketarako kudeaketaren jarraibide nagusiak ezagutzea.

Prestakuntza ekintza amaitzean ikaslea gai izango da:

GAITASUNAK

- Administrazio-berrikuntzaren eta herritarrei arreta emateko arloan izan diren berrikuntzak ezagutzeko eta aplikatzeko.
- Administrazio-sinplifikazioaren eta -berrikuntzaren kontzeptu nagusiak ezagutzeko eta aplikatzeko.
- Toki-administrazioko administrazio-kargetan aurrezkiek izan duten inpaktua ebaluatzeko tresnak ezagutzeko eta menderatzeko.
- Jasotako ezagutzak bere erakundearen aplikatzeko eta zabaltzeko.
- Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen gakoak administrazio elektronikoan zabaltzeko.
- Sinplifikazio- eta berrikuntza-proiektuen buru izateko bere erakundearen.

PRESTAKUNTZA ARLOA:	BERRIKUNTZA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

TALLER SOBRE INNOVACIÓN ADMINISTRATIVA Y E-ADMINISTRACIÓN

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Aspektu eta kontzeptu teorikoei buruzko aurrez aurreko azalpenak emango dira, ondoren agertzen diren alderdietako berrikuntzarako zein sinplifikaziorako esperientziei eta kasuei buruzko panelen bidez:

- Herritarren arretarako arloak gizartearekin eta herritarrekin duen harremana.
- Administrazio-sinplifikazioaren inpaktuen ebaluazioa.
- Kontratazio publikoaren gardentasuna.

Bideoak, preziak eta bestelako ikus-entzunezko materialak proiektatuko dira tratatuko diren kontzeptuak azaltzeko.

1.eguna

- **Berrikuntzarako guneak sortzea:** Kudeaketa-ereduak, estrategia eta berrikuntza publikoa.
- Herritarrekiko harremanen **desburokratizazioa**.
- Administrazio publikoetarako administrazio-berrikuntzari buruzko **10 gomendio**.
- **39/2015 Legearen sinplifikazioa.** Administrazio elektronikoaren bidez sinplifikatuz.
- Call for an open debate: Adierazi zure ardurak eta kezak! Konta itzazu!

PROGRAMA

2.eguna

- Erakunde publikoetako **desburokratizazio-proiektuak** planifikatzea eta gauzatzea. Aldaketarako kudeaketaren ikuspegia.
- Berrikuntzarako helburu gisa, balio publikoaren inpaktuaren eta sorkuntzaren **ebaluazioa egitea**.
- **Mapa mentalak eraikitzea:** Ideiek strategiarekin bat egiten dutenean eta gizartearen inpaktua duten proiektu bihurtzen direnean.
- Call for an open debate: Adierazi zure ardurak eta kezak! Konta itzazu!

EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Ikastaroko azken saioa amaitzen denean, hamar galdera dituen eta hainbat erantzun dituen test motako proba bat egingo da, eta parte-hartzaileek galdera guztiak erantzun beharko dituzte. Test hori egiteko 20 minutu izango dira eta beharrezkoa izango da, gutxienez, 10 puntutik 7 puntu lortzea testa gainditzeko. Azken kalifikazioa GAI edo EZ GAI izango da.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazioa inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Bete beharreko baldintzak:

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

PREZIOA

114€ (AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena).